



Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I Plana Trobiñuko Enklabea 2022 - 2025

Irakurketa Errazeko Bertsioa



AYUNTAMIENTO DEL CONDADO
DE TREVIÑO
TREBIÑUKO KONDERRIKO UDALA



Piktograma hau dokumentua **irakurketa errazera egokituta** dagoela adierazten du.

Irakurketa erraza **testuak ulergarriagoak** egiten dituen idazketa-teknika bat da.

Testuaren informazioa jatorrizkoaren berdina da baina **esaldi errazekin** eta **irudiak** erabiliz.

Hitz zailak letra **lodiz markatuta** eta atzean honelako **izartxo** batekin * aurkituko dituzu.

Hitz hauek orden alfabetikoaren arabera **zerrenda batean azaltzen dira**, 5. eta 6. orrialdeetan.



Aurkibidea

1 Hitzen zerrenda 5. orria

2 Planaren aurretik...
Diagnostiko bat 7. orria

3 Emakumeen eta gizonen arteko
berdintasunaren alde lan egitea 8. orria

Zergatik da beharrezkoa? 8. orria

Zertarako egiten da
Berdintasun Plan hau? 9. orria

4 Nola bultzatu
dezakegu berdintasuna? 11. orria



Aurkibidea

5

Zer egingo dugu?

16. orria

Helburuak eta ekintzak

1. ardatza. Gobernantza
hobetzeko neurriak

12. orria

2. ardatza. Balioen aldaketa
eta emakumeen ahalduntzea

17. orria

3. ardatza. Antolaketa
sozial erantzukidea

21. orria

4. Ardatza. Emakumeen aurkako
indarkeria matxista desagerraraztea

23. orria

6

**Nortzuk dira ekintzen
arduradunak?**

26. orria

7

**Nola dakigu hau
lortzen den?**

27. orria



1 Hitz-en zerrenda

Ahalduntzea

Gizartean **desabantailan** dauden pertsonen **parte-hartzea** eta erabakitzeke duten ahalmena indartzea.

Erantzunkidetasuna

Zerbaiten edo norbaiten **ardura** **indibiduala ez denean** erabiltzen da, baizik eta beste pertsona batekin edo batzuekin **partekatzen denean**. Adibide bat: seme alaben zaintza.



Genero ikuspegia

Pertsonak gizon edo emakume gisa definitzen dituzten **kategoria tradizionalak** zalantzan jartzen dituen ikuspegi feminista da.

Eraikuntza hauen **izaera soziala** eta sortzen dituzten **diskriminazioak** azaltzen ditu.



Hitzen zerrenda


Indarkeria matxista

Emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa eragiten dion edo eragin diezaiokeen indarkeria ekintza oro.

Gizartean **ezarritako arauditik** ateratzen diren pertsoneri ere eragin diezaieke, LGTBI kolektiboari adibidez.

LGTBI kolektiboa

Sigla hauek **lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen** kolektiboa izendatzeko erabiltzen dira.






2 Planaren aurretik... Diagnostiko bat

Zertan datza diagnostiko bat?

Plana egin aurretik, **enklabearen egoera aztertzen duen ikerketa** bat egiten da.



Zer egin da diagnostikoan?

- Indarkeria matxistaren eta beste **genero desberdintasunen ikerketa.**
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako **arreta hobetzeko protokoloa.**
- Teknikari, politikari eta herritarrentzako **formakuntzak.**





3

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea

Zergatik da beharrezkoa?

Berdintasun Plan bat emakumeentzako berdintasunezko Enklabe seguru bat eraikitzeko neurriak finkatzeko egiten da.

Planak udalerrri txikien beharrei ere erantzuten die, hala nola Enklabearen premiei, honako hauek dituzte:

Lan-dinamika geldoak

teknikari eta politikarien faltagatik.

Egitura ahulak

emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko.





Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea

Zertarako egiten da Berdintasun Plan hau?

Lehengo Planaren helburua botere publikoak emakumeen eta gizonen arteko **berdintasunera bideratzea** da haien **balioak alda ditzaten**.

Berdintasun Plan hau hurrengo **printzipioetan** oinarritzen da:

- Berdintasunaren **izaera soziala** bultzatzea eta **indarkeria matxistaren*** gaitzespena sustatzea.
- 2022. eta 2025. urteetan **kalitatezko berdintasun politika publikoak** abian jartzeko udal konpromisoa sustatzea.





Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egitea


Zertarako egiten da Berdintasun Plan hau?

- **Genero ikuspegia***
udal arloen eguneroko lanean
eta udal jardueretan txertatzea.
- Planaren **gestioa ziurtatzea**
maila teknikoan eta politikoan.
- Herritarrek eta, bereziki,
emakumeek **berdintasun
politika publikoetan
parte hartzen** dutela
bermatzea.



4 Nola bultzatu dezakegu berdintasuna?

- Trebiñuko Enklabean **genero ikuspegia txertatuko duen politika** sortuz.
- Berdintasuna herritarren **interesetan mantentzea**.
- **Zaintza-lanetan erantzunkidetasunak*** duen garrantziari buruzko **kontzientzia** sortzea herritarren eta udalaren artean.
- **Udalerri seguru**en eraikuntzan aurrera eginez.





5

Zer egingo dugu? Helburuak eta ekintzak

1.
ardatza

Gobernantza hobetzeko neurriak

1. helburua: Berdintasun Plana garatzeko beharrezkoak diren egiturak sortzea eta finkatzea

Helburuak

Planaren **bultzada eta jarraipena** indartzea

Berdintasunerako udal politikei **jarraipena emateko mekanismoak** ezartzea

Plana ezartzen lagunduko duten tresnak izatea

Udalerri bakoitzeko teknikariak **genero plangintzan kalifikatzea**

Berdintasun arloko teknikoan eta politiken **lankidetzak sareak** indartzea

Ekintzak

▶ **Lan egonkortasuna** ematea berdintasun teknikariari

▶ Beharrezko **bilerak** herritarrekin, politikariekin eta teknikariekin

▶ **Urteko Programa Operatiboa** diseinatzea ekintzak pentsatzeko

▶ Arlo bakoitzerako **plangintza tresnak** diseinatzea eta horiek egiteko aholkuak ematea

▶ Arabako eta Burgosko beste berdintasun arloekin **koordinazioak egiten jarraitzea**



1. ardatza

Gobernantza hobetzeko neurriak

2. helburua: Enklabeko langileen berdintasunari buruzko ezagutza sustatzea

Helburuak	Ekintzak
Politikariek berdintasunaren alderdi teoriko eta praktikoetan duten ezagutza indartzea	Berdintasun politikei buruzko formazio programa bat garatzea politikari eta teknikariei bideratuta
Dokumentuen kalitatea hobetzea hizkuntza inklusiboa erabiltzen dela ziurtatuz.	Barneko eta kanpoko dokumentuak berrikustea hizkuntza hobetzeko
Teknikarien eta politikarien genero ikuspegia duen plangintza gaitasuna indartzea	Genero ikuspegia duten aurrekontuei buruzko formakuntza egitea



1. ardatza

Gobernantza hobetzeko neurriak

3. helburua: Berdintasun Plana zabaltzea udalerriko langileen eta Enklabeko biztanleen artean

Helburuak

Ekintzak gauzatzeko ardura duten pertsonen **Plana ezagutzen dutela ziurtatzea**

Herritarrak berdintasunean **sentsibilizatzea** Plana eta Urteko Programa Operatiboaren ezagutzaren bidez

Ekintzak

▶ Plana eta Urteko Programa Operatiboak udal bakoitzeko **teknikariei eta politikariei aurkeztea**

▶ Plana eta Urteko Programa Operatiboak **herritarren artean zabaltzea** udalen bitartekoen bidez.



1. ardatza

Gobernantza hobetzeko neurriak

4. helburua: Enklabearen errealitatea ezagutzen jarraitzea diagnosi eta ikerketen bidez

Helburuak	Ekintzak
<p>Pandemiaren eragina txertatuko duen genero harremanen eta emakumeen egoeraren diagnosi bat izatea</p>	<p>▶ Pandemiaren eragina eta bere ondorioen azterketa egitea populazio ahuletan edo haien ahultasuna areagotu denengan</p>
<p>Genero harremanen eta, oro har, zaintza-lanetan dauden rolen diagnostikoa egitea, baita mendeko pertsonen eta haien erantzukidetasun familiarra eta sozialaren diagnostiko bat egitea ere</p>	<p>▶ Mendekotasuna duten pertsonak, adingabeak eta hirugarren adinekoak nola zaintzen diren jakitea, familia eta gizarte erantzukidetasuna sustatzen duten neurriak lantzeko</p>
<p>Parte hartzeko kanalak prestatzea, lorpenak eta beharrak ebaluatu eta identifikatzeko</p>	<p>▶ Herritarrekin partaidetza prozesu bat egitea politika publikoak ebaluatzeko</p>



1. ardatza

Gobernantza hobetzeko neurriak

5. helburua: berdintasun politiken ebaluazio bat egitea Enklabean

Helburuak

Planaren neurriek herritarrengan duten **eragina erregistratuko duten tresnekin** kontaktzea

Planaren **eraginkortasuna** eta iraunkortasuna ezagutzea **ezarpenaren amaieran**

Ekintzak

▶ Planak herritarren artean duen **eraginaren ebaluazioa** bat egitea

▶ Espero diren emaitzen **betetze mailaren ebaluazio** bat egitea



2. ardatza

Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea*

1. helburua: Enklabeko emakumeen autonomia eta ahalduntzea bultzatzea

Helburuak

Emakumeen ahalduntzea sustatzea, **gogoeta eta eztabaida guneen** bidez

Emakumeen elkarteak eta **erakunde mistoak** indartzea haien parte hartzea sustatuz

Ekintzak

▶ Emakumeen ahalduntzea sustatzeko **tailerrak** burutzea LAIA eskolaren bitartez

▶ Elkarte mugimenduaren **jarduerak babestea**



2. ardatza

Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea

2. helburua: emakumeak kulturean eta kirolean ikusaraztea emakumezko erreferenteak erabiliz

Helburuak

Emakumeek **zientzian eta teknologian** duten **parte hartzea** ikusaraztea

Kirola bultzatzea emakumeen **autonomiarako** bide gisa, haien indarra eta gaitasuna nabarmenduz

Ekintzak

▶ Historian zehar zientzian eta teknologian egondako emakumeak **ikusarazteko jarduerak** egitea

▶ Enklabeko nesken, nerabeen eta emakumeen **kirol jarduerak babestea**



2. ardatza

Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea

3. helburua: herritarren parte hartzea sustatzea emakumeak eta berdintasuna aldarrikatzeko jardueretan

Helburuak

Herritarren artean emakumeen eta **LGTBI*** kolektiboaren **eskubideen kontzientzia** sustatzea

Emakumeen **elkartek** indartzea

Ekintzak

▶ **Sentsibilizazio-ekintzak**
martxoaren 8an, maiatzaren 17an eta 28an, ekainaren 28an, urriaren 15ean eta azaroaren 25ean

▶ Elkarteen eta emakumeen **jarduerak babestea**



2. ardatza

Balioen aldaketa eta emakumeen ahalduntzea

4. helburua: landa eremuko emakumeen lanerako prestakuntza eta laguntza sustatzea

Helburuak	Ekintzak
Landa eremuko emakumeentzako lan merkatua eta aukerak ezagutzea	Enklabeko emakumeentzako lan merkatua aztertuko duen ikerketa bat egitea
Emakumeek enplegarritasuna hobetzeko dituzten gaitasunak handitzea	Emakumeen enplegarritasuna sustatzeko tailerrak egitea
Landa eremuko emakume gazteentzako formakuntzak areagotzea eta lan esperientzia dutenak birkualifikatzea	Kualifikazio eta birkualifikazio profesionaleko formakuntzak egitea
Emakumeentzako enplegu nitxoak ezagutzea eta horietan sar daitezen sustatzea	Enplegarritasunaren eta laneratze ibilbidearen diagnostiko bat egitea
Landa eremuan emakumeen enplegua areagotzen duten baldintzak bultzatzea	Emakumeei lana bilatzen laguntzeko programa bat egitea



3. ardatza

Antolaketa sozial erantzukidea

1. helburua: administrazio publikoak erantzukidetasuna eta kontziliazioa sustatuko dituela bermatzea

Helburuak	Ekintzak
Udaleko jardueretan kontziliazio neurriak eta mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko neurriak izatea	▶ Kontziliazio neurriak txertatzea udalen urteko programazioan
Adineko, mendeko edo buruko gaixotasunak dituzten pertsonen zaintzaileentzako zaintza ekintzak bultzatzea	▶ Adineko pertsonen zaintzaileen higadura saihestuko duen atseden jarduera bat egitea
Kontziliazio neurriak hobetzea udalerrietan	▶ Barneko kontziliazio neurriak hedatzeko dokumentu batean jasotzea



3. ardatza

Antolaketa sozial erantzukidea

2. helburua: herritarrak zaintzaren buru kargari buruz eta emakumeengan dituen ondorioei buruz sentsibilizatzea

Helburuak	Ekintzak
Enklabeko zaintza eta zaintzaileen egoera ezagutzea	▶ Enklabeko emakumeen buru kargari buruzko ikerketa bat egitea
Herritarren artean zaintzen garrantzia eta familian partekatzeko beharra sustatzea	▶ Buruko kargak emakumeengan duen eraginari buruzko sentsibilizazio kanpaina bat egitea
Zaintzen erantzunkidetasuna sustatzea familian eta komunitatean	▶ Buru karga gutxitzeko eta herritarren artean zaintza partekatzeko formakuntzak eta neurriak egitea



4. ardatza

Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea

1. helburua: indarkeria matxistaren eta emakumeen aurkako indarkeriazko jokabideen prebentzioa hobetzea

Helburuak	Ekintzak
Indarkeriaren aurkako kanpainak fokua erasotzaileengan jar dezaten bermatzea, biktimgan dituzten ondorioez gain	▶ Emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko kanpainak antolatzen jarraitzea
Emakumeentzako jai seguru en gauzatzea bermatzea	▶ Jaietan eta jarduera publikoetan eraso matxisten aurkako kanpainak egitea
Indarkeria matxistaren aurkako zero tolerantziaren kultura sustatzea	▶ Emakumeen diskriminazioari eta indarkeria matxistako jokabideekin duten harremanari buruzko hitzaldiak ematea
Gazteen artean indarkeria matxistaren aurkako zero tolerantziaren kultura sustatzea	▶ Tratu onak sustatzeko eta jarrera bortitzak eta sexistak prebenitzeko tailerrak antolatzea gazteentzako



4. ardatza

Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea

2. helburua: administrazio publikoak eta kanpoko eragileek indarkeria matxistaren aurrean jarduteko duten konpromisoa hobetzea

Helburuak

Erakundeen arteko koordinazioa indartzea indarkeria matxistaren **biktimentzako arreta hobetzeko**

Indarkeria matxistaren biktimei **berehalako erantzuna bermatzea**

Ekintzak

▶ Protokoloa **koordinatzeko** mahaiaren **bileren jarraipena** egitea

▶ Politikariei **formakuntzak** ematea indarkeria matxistako **premiatzko kasuei erantzuten** jakin dezaten



4. ardatza

Emakumeen aurkako indarkeria matxista desagerraraztea

3. helburua: emakumeen segurtasun fisikoa eta segurtasun sententzia hobetzea enklabeko herri nagusietan

Helburuak

Enklabeko herrien **segurtasun** objektiboa eta subjektiboa **areagotzea**

Enklabeko **espazio publikoan** emakumeentzako leku eta baldintza **arriskutsuak** murriztea

Enklabearen lurraldean herritarrek emakumeentzako **gune seguruak** bermatzeko konpromisoa hartzea

Ekintzak

▶ Enklabeko **arrisku eremuei** buruzko **ikerketa** bat egitea

▶ Ikerketan proposatzen diren **neurriak garatzea**

▶ Herritarrek **herri seguruak** eraikitzeke egiten dituzten **ekimenak** babestea



6 Nortzuk dira ekintzen arduradunak?

- Enklabeko **berdintasunerako organoa**
- Udaleko **teknikariak**
- Udaleko **politikariak**
- **Laguntza teknikoa**






7 Nola dakigu hau lortzen den?

Planerako planteatutako helburuei eta ekintzei lotutako **adierazleak** definitzen dira.

Adierazle hauek **Planaren jarraipena** egiten dute, baita ezarpenean eta inplementatu ondoren lortutako emaitzen jarraipena ere.

Hauek dira Planerako adierazleak:

- Ekintza bakoitzaren ondoren **ebaluazioak jasotzea**
- Berdintasun Batzordeak **urtean 3 saio** egitea **ekintzak ebaluatzeko**
- Berdintasun Batzordeak **proposatutako hobekuntzak** txertatzea
- **Biztanleriaren parte hartzearen** bilakaera garatutako ekintzetan





Planaren **bertsio osoa** irakurtzeko,
hurrengo kodea eskaneatu:

